

HONDARRIBIKO ALABEGANDIK IDAROKITAKO KANTAK

Mende honen hasieran lau Diputazioen artean euskal kanten bilketazko saria antolatzen zuten. Doinu eta letraz mila eta bat aurkeztu zituen R.M. Azkueri eman zitzaion lehen saria eta Aita Donostiaren bildumari aipamen berezia. Handik laster argitaratu zuen Azkuek **Cancionero popular vasco** izenburuz gure herri literaturaren aberasgarri zetorren kanta bilduma, jeneroz sailkatu-rik.

Horien artean bada amodiozko kanta polit bat Hondarribiko alabegandik idarokia. Ez dakigu bere egilear nor zen, baina zalantzarik gabe esan dezakegu marinela maiteminduren batek egina zela, hemendik Zumairaino zabaldu zenez.

Lehendabizi hemen Zenon Ayestara-nengandik jasoa adiaraziko dugu. Hara hemen bere doinuaz:

**Hondarribia herri txikia,
barruan plaza zabala,
alargun batek bai omen ditu
ederrak hiru alaba.
Zun eta zun, Isabel, Manuela,
Margarita zun eta zun eta zun,
pelo largo ta zun.**

Hondarribian Ayestaran zen horri jasoa Zumaian Franziska Erkiziagandik ahoz jasoa aldaeratsat ematen du azkuek eta hala dirudi. Gainera, Zumaian bilduak hiru bertso ditu eta Hondarribian bertan jasoa bat baizik ez. Lehen bertsoan nabari den desberdintasunik nabarmenena, doinuare-naz gainera, azken lerroko "pelo largo ta zun", zumaiararenean "Peru larga ta jun" dela. Argi erakusten duelarik nahi eta ezinaren amorioak eraginiko kanta zela, ondo-ko bertsoetan ikusiko dugunez.

Okinaren alabak zirela aditzera emango digu eta kortesiaz egin zion eskaria pobrea izateagatik ukatzeas ogi berotan kaudala jateko aukera galdu zuen maitemindu giza-rajoak. Hara hemen bere doinua eta gainera-ko beste bi bertsoak, zun-zun edo zon-zon errepika kendurik:

**Hondarribia herri txikia,
erdian plaza zabala,
alargun batek hor omen dauzka
ederrak hiru alaba.
Zon, zon, zon, Isabela, Manuela,
Margarita zon eta zon eta zun,
Peru larga ta jun,
Peru larga ta jun.
Kortesiakin eskatu nion
bat eman behar zidala.
Erresposta aditu nuan
"mutil pobrea nintzala".
Zon, zon, zon...**

**Mutil pobrea banintzan ere
zu okin baten alaba,
ogi berotan jango genduan
zurekin neure kaudala.
Zon, zon, zon...**

Azkueren kantategi horretan, alderantziz, ogibidezkoen edo ofiziozkoen sailean datoren Hondarribiko dendariarena dator. Dendariak nonbait ez zuen izan okinaren alabak aukerarik. Dirua bai, baina senargarik ez. Hara kottaduari egin zioten kanta:

**Dendari bat bada gure auzoan,
irabazten baitu ofizioan;**

**bere orratzez, bere hariez irabazten
du;
badu diru, boltsa badu, aberats da;
senar on bat baizik horrek ez du falta.**

Hor ba, zein gaizki banatua den mundu-ko ondasuna. Hala erakusten bai digute Hondarribiko kantak.

Juan San Martin

Allegretto

Hon-darr-i-bi - a herr - i txi - ki - a
barr-u-anpla-za za-bal-a, a largunbat-ek
bai omen di-tu e-derrak hi-ru a-la-ba.
Zun e-ta zun I-sabela Manuela, Margarita zun e-ta
zun e-ta zun pe-lo lar-go ta zun.

Alllegro

Hondarri-ti - a herr-i-biki - a er-di-anpla-za
za-bal - a a-largunbat-ek hor emen-dauzka
e-der-ak hi - ru a-la-ba. Zon zon zon
I-sabela Manuel-a Margari-ta zon e-ta zon eta zun Peru
lar-gu ta jun, Peru lar-gu ta jun.

OHARRAK

TXANDAKO BOTIKAK

Azaroak 28 - Abenduak 4: Erauskin
Abenduak: 5 - 11: Maiu
12 - 18: Iraola
19 - 25: Erauskin

Maiu, Alm. Alonso Kalean - 642191
Iraola, J. Ugarte Kalean - 641027
Erauskin, S. Pedro Kalean - 641018

TXANDAKO OKINDEGIAK

Abendua 4: Martinez
5: Arratibel
6: Garmendia
11: Martinez
18: Arratibel

Arratibel, Zubieta Kalean - 641975
Garmendia, Santiago Kalean - 641136
Martinez, Kale Nagusian - 641212

EUSKARAZKO MEZAK

LARUNBATETAN:
Arratsaldeko 6etan Portuan (haurrentzat)
7,30etan Portuan

IGANDEETAN:

Goizeko 8,30etan Betherran
9etan Amuten
9,30etan Guadalupen
11etan Portuan